

# TROKAOLATARRAK

## GILKITXARO ANTZERKI TALDEA

**Idea: Gilkitxaro**

**Gidoia: Galder Perez**

**Bertsoak: Fredi Paia**

TROKAOLATARRAK **Gilkitxarok** sortu duen laugarren antzezlan da. **Aligiri-Otumetxu** baserrian ama alaba diren hiru emakume alargun bizi dira, **Trokaolatarrak**. Etxean bizi ziren gizonezkoen heriotza misterioitsuak gertatu baziren ere, herrian ez dituzte erruduntzat hartzen, bai, aldiz, pekatarizat. Nola liteke gizonezko barik hiru emakumek baserria aurrera ateratzea?

**Margaritak**, *Fundación de las Margaritas* erakundeko emakume aberatsak, **Aita Domekaren**, herriko apaizaren, zerbitzuaz eta laguntzaz baliatuta, Trokaolatarrak bideratu nahi izango ditu, beti ere **Don Claudio Sánchez de Albornoz**, herriko jabearen babespean.

Baserriko txerriak bizirik eta gero eta lodiago dauden bitartean, Aligiri-Otumetxu baserrian txarriboden ospakizunek aurrera jarraitzen dute. **Txarriak** izango dira, hain zuzen ere, komedia honen gidariak. Animalien ohiturak galtzen doazen heinean, txerriak pertsonen bizioak ikasten joango dira. Menpekotasuna, familia, boterea eta zintzotasuna bezalako baloreak kolokan jarriko dira obran zehar.

Atzoko euskal teatroak baserria eta herri xehearekin lotura sendoa zuen. Erlijioak aurreko gizartean zuen pisuaren erakusle zen antzerkia ere. Ohiturak, tradizioak eta batez ere, eragin handia zuten, siniskeriak etengabeak dira TROKAOLATARRAK antzezlanean.

Gaur egungo gizarteak nekazal eta baserri giroan bere burua islatuta ikusten ez badu ere, oraingo bizimoduak dituen osagai asko agertuko da antzezlanean: boterea lortzeko lehia, dirua eskuratzeko garra; kontrol iraunkorra azken finean. Edo hobe esanda, kontrola galtzearen beldur etengabea. Kontrola edukitzeak berez dakar domeinua eta agintea hondoratzearen egonezina. Gezurra eta faltsukeriaren laguna den inposaketan ondorioztatzen da beldur hori. Hori da gizakiari datxekion justizia bidegabeenaren bilaketa. Bakoitzaren justizia, norberarena, bakarrean bihurtzeko arriskutan dagoen zuzenbidea da. Norberekerian kaosa kolektibitatearen, taldearen, irudiaren atzean estaltzen da, familian, herrian edota edozein estamentutan. Itzelezko zorigaitza estaltzen duten beste komeria askotan bezala umorea da gure inguruari eraso egiteko aukeratu dugun arma.

TROKAOLATARRAK antzezlanean agertuko diren ohitura eta tradizioari buruzko erreferentziak **Azkueren** ikerketetan oinarrituta daude batez ere. Bestalde **Gabriel Arestiren** antzerki lanak gogoratuz, eta omenduz, bere teatroaren aipuak izan badaude. Horretaz gain ezagunak ere diren **Mogelen Peru Abarkaren** gisako pertsonaiak, edota ezagunak ez diren gure inguruko arbasoen presentzia aurki daiteke TROKAOLATARRAK osatzen duten pertsonaien atzean. **Fredi Paia** bertsolariak, gainera, antzezlanarentzat beren beregi bertso sorta bat prestatu du. Musika ezberdinek, euskal tradizionalak zein elektronikoak, girotzen dute obra.

Agerraldi bakar batean gertatzen den baserri komedia da TROKAOLATARRAK. Bederatzi pertsonaien arteko harremanak eta gora beherak dira agertuko direnak. Istorio honetako protagonistak eta aurretik zegoen mundu orok obraren sarean eroriko dira. Guztira hamabost eszena arinek kaosean bukatu behar duen tentsioa areagotuko dute.



## 1. AGERRALDIA

*(Baserri giroa sortzen duten bitxikeri batzuk baino ez daude dekoratu gisa. Eszenatokian txerri bi ikusten dira. Lau hanketara ibiltzen dira eta zerbait jaten ari direla dirudi. **OFF AHOTSAK** ipuin bat kontatzen du musikak lagundua. **TXERRIAK** eszenatokian daude.)*

### **OFF AHOTSA.**

Aspaldiko garai batean, Mugalde izeneko herrian, Mugarte deritzon erresumako azkenean, mugaren muturrean, baserri ederra zeukan Trokaolatar sendi mugagabea bizi zen. Ama Juana Bixenta da eta Inaxia eta Frantziska alabak. Hirurak poz-pozoin... pozi.. poz... polit! Polit bizi dira elkarrekin. Aberastasun eta ogasunik ez zitzaien falta. Baina zorigaitza eta atsekabea ezustean etorri ohi da. Familiako gizonezkoak ustekabean hil zirenetik zorigaitzoko bihurtu zen Trokaolatarren Aligiri-Otumetxu baserria. Zorigabe bizi dira orain Trokaolatarrak. Hazienda eta ogasun guztia apurka hondoratzen joan dira. Larriena zergei aurre egitea da ostera. Don Claudio Sánchez de Albornoz jauntxoaren ordainei aurre egin behar diote Trokaolatarrak landatzeko daukaten lur apurrarekin eta bi txerrien jakiekin soilik.

*(**TXERRIAK** urduritzen doaz ozenki kurrinka eginez. )*

**INXIA.** *(Barrutik bere ahotsa entzuten da.)*

Bi txerrien jakiak! Baina, hori ez da ezer!

*(**TXERRIAK** gero eta urduriago ozenki kurrinka.)*

**FRNTZISKA.** *(Barrutik.)*

Txerri birekin... ezer gutxi! Mmmm... Txorizo batzuk... odolestea... urdaiazpikoa... txuletatxoa... txerrien belarriak...

*(**TXERRIEN** kurrinka gero eta ozenago publikoaren artean estaltzen doazen heinean.)*

**JUANA BIXENTA.** *(Ezkerraldeetik bere burua agertzen da.)*

Inaxia! Frantziska!

*(**TXERRIAK** gero eta urduriago daude ikusleen artean kurrinka. Ez da beste erantzunik entzuten.)*

**JUANA BIXENTA.**

Inaxia! Frantziska!

**FRANTZISKA.** (*Eskumako aldetik agertuz.*)

Zer ama?

**JUANA BIXENTA.**

Txerriak mugitu! Auzokoen arluen dauz!

**FRANTZISKA.**

Bai, ama!

(**TXERRIAK** ikusleen artean jarraitzen dutela **FRANTZISKA** eszenatokira doa. Baserritar emakume gaztea da. Beltzez jantzita doa eta zapia buruan darama. Makila handi batekin mehatxu aurpegiz begiratzen ditu ikusleak **TXERRIAK** aurkitu arte. Aurkitu dituenean hauengana hurbiltzen da. Makilarekin eszenatokirantz bultzatzen ditu. **TXERRIAK** kexuka eta kurrinka eszenatokira igotzen dira. **FRANTZISKA** desagertzen da, makila bertan uzten duela.)

## 2. AGERRALDIA

**TXERRIA 1.** (*Burla egiten du utzitako makilaz baliatuz.*)

Auzokoen arluen dauz!

**TXERRIA 2.**

Andra gaixoa, burua galduz doa.

**TXERRIA 1.**

Burua galdu? Bai zera! Horrek ez du sekula bururik galdu. Sano sano dabil atsoa. Zorionekoa Inaxia eta Frantziska aldamenean edukitzeagatik.

**TXERRIA 2.**

Zorionekoa bi alaba zeken eta oker horiekin? Fernando Txistu, bere senarra eta alaben aita, duela bi urte beste mundura bidali zutenetik ez du bakerik izan Juana Bixenta andreak.

**TXERRIA 1.**

Bakea bera eta beste gizon hura, Florenxio Trabajador, Frantziskaren senarra, (*bultza egitearen keinua*) eskaileretatik behera erori zenetik etorri zaie bakea Trokaolatar emakumeei.

**TXERRIA 2.**

Bai, baina bakarrik geratzen da Frantziska.

**TXERRIAK.**

Senarrik gabel!

**TXERRIA 1.**

Horrela hobe. Florenxio Trabajador! Izena baino ez zeukan gauzaez horrek. Alproja galanta!

**TXERRIA 2.**

Zendutakoez ez horrelakorik esan!

**TXERRIA 1.**

Egia baino ez da. Urdea hil ostean kurrinka bizi dira.

**TXERRIA 2.**

Mesedez! Zaindu itzazu hitzok! Ikusteko dago oraindik. Deabruak egin ez duena egiteko gai dira neskak horrek!

**TXERRIAK 1.**

Zuk esaten duzun bezala, esker onekoa izan behar da. Gu hemen eta bizirik jarraitzea haiei zor diegu.

### 3. AGERRALDIA

*(MUSIKA INDUSTRIALA + MIKEL LABOA entzuten da*

**JUANA BIXENTA** agertzen da eskumatik. Txerriek hitz egiteari uzten diote eta kurrinka hasten dira. Pixkanaka eszenatokia utziko dute.

**JUANA BIXENTA** Frantziska eta Inaxiaren ama da. Hirurak baserritar emakumeak dira eta beltzez jantzita doaz. **JUANA BIXENTA** emakume zaharra, argala, txikia eta herrena da. Mugitzeko zailtasun handia dauka, oso astiro dabil. Gauza asko eramaten ditu sorbalda gainean, askoren artean hiru aulki txiki. Denboratxo batez astiro-astiro ibiltzen egon ondoren aulki bi botatzen ditu.

MUSIKA INDUSTRIALAren intentsitatea gehituz doa.

**FRANTZISKA** eta **INAXIA** agertzen dira zapiarekin buruan eta lanerako amantalarekin. **INAXIAK** sarda dakar eta belarrarekin lanean hasten da eskumako aldean. **FRANTZISKAK** aiztoak zorrozten ditu.

**JUANA BIXENTA** eskenatokiko ezker aldean leku bat aukeratu, aulkitxoa jarri eta artoa garaintzen hasten da.

MUSIKAREN intentsitatea eta erritmoa puri-purian dagoela **TROKAOLATARREN** lan erritmoak musikarekin bat egiten du. **JUANA BIXENTAK** bere lana utzi eta kandelak pizten hasten da.

**FRANTZISKAK** txorizozko bokata pare bat prestatzen ditu.).

**FRANTZISKA.** (Zutik, txorizoarekin eskuan).

Txerria hiltzeko garaia maite dut. (Ahizpari hamaiketakoa ematen dio.)

**INAXIA.** (Zutik, hamaiketakoa hartzen).

Maiteko ez duzu ba? Lasai geratu zara orain.

**FRANTZISKA.**

Aita gogorarazten dit.

**INAXIA.**

Tira, zure senar Florenxio argalagoa bazen ere ederra gelditu da.

(Bokata begiratuz eta dastatuz.) Txorizo paregabeak eman dizkigu!

**FRANTZISKA.**

Ez du itxura txarra, ez.

**INAXIA.**

Hala ere aitaren odolestean berdintzerik ez dago!

*(FRANTZISKAK irribarre egiten dio aizto handi bat haginaren artean duela.)*

**INAXIA.** (*Aulkian berriz ere jesarriz*).

Badago gustukoa ez dudan zerbait.

**FRANTZISKA.**

Zer da?

**INAXIA.**

Aitarenarekin bukatu genuenean gutxi izan bagenuen ere, beste urte bi gehiago eman beharko dugu doluan, jantzi ilun eta goibel hauek erakusten.

**FRANTZISKA.**

Batzuk behintzat baduzue beltzezko zoriona.

**INAXIA.** (*Zutik, lelarena eginez.*)

Zer esan nahi duzu?

**FRANTZISKA.**

Zure erromantzeaz hitz egin behar al dut ezezagun guzti hauen aurrean?  
(*Publikoa seinalatuz.*)

**INAXIA.**

Hara bestea! Zer uste duzu, denok zure moduko bizitza aspergarria eduki behar dugula?

**FRANTZISKA.** (*Aiztoarekin mehatxu egiten dio*).

Ez asko zirikatu. Berbetan hasten banaiz aterako ditut ezkutuan ditudan trapu zahar denak!

**INAXIA.**

Geldi-geldi, gero. Lotsaren izpirik izatekotan, hobe zenuke isilik egotea.

**FRANTZISKA.** (*Oso haserre ahizparen inguruan bueltaka.*)

Zuk ez dakizu lotsa zer den eta neu isilik? Ez horixe!

**INAXIA.**

Tira, tira, lanarekin jarraitu behar dugu!

**FRANTZISKA.**

Hobe dugu. Bai, hobe dugu... (*Haserre eskenatokitik alde egiten du, sarda berarekin eramanez*).

(*INAXIAk bere ama zegoen tokian jesartzen da hark hasitako lanarekin jarraituz.*)

**JUANA BIXENTA** kandelen kontuarekin dabil oraindik.

**FRANTZISKA** indabekin agertzen da eta pentsakor lanean jesartzen eskumako aulkitxoan).

**INAXIA.** (**FRANTZISKA** begiratzen egon ostean, *hurbiltzen zaio, irribarretsu*).

Triste?

**FRANTZISKA.**

Triste, zer ba?

**INAXIA.** (*Bere aldamenean jesartzen da*).

Kopetilun ikusten zaitut.

**FRANTZISKA.**

Ezta gutxiago ere. Pentsatzen baino ez nago.

**INAXIA.**

Pentsatzen? Zertan?

**FRANTZISKA.**

Ba, etorkizunean, neska...

**INAXIA.**

Lasai ibili! Etorri behar dena etorriko da, guk geuk irtenbiderik jartzen ez badiogu behintzat.

**FRANTZISKA.**

Horregatik. Guk jarri beharko dugu erremedioa.

*(KANPAI HOTSAK entzuten dira).*

**FRANTZISKA.**

Hara! Meza ordua. Zoaz azkar!

**INAXIA.**

Ni? Eta zuek?

**FRANTZISKA.**

Lana gaur bukatzekoa da, eta ama... (**JUANA BIXENTA** begiratzen dute. **JUANA BIXENTAK**, galduta bezala, kandlekin jarraitzen du). Hobe zu bakarrik bazoaz. Batek daki herriko saltsan pil-pilean zer dagoen.

*(INAXIA odolez betetako amantala kentzen hasten da. **JUANA BIXENTA** ziplo esnatzen dela ematen du).*

**JUANA BIXENTA. (INAXIAri).**

Nora zoaz horren azkar?

**INAXIA.**

Nora?

**JUANA BIXENTA.**

Zerbait gertatzen al da?

**INAXIA.**

Zerbait?

**FRANTZISKA.**

Herrira doa. Meza ordua da.

**JUANA BIXENTA.**

Meza? Eztakit gauza garbia ote den.

**FRANTZISKA.**

Horregatik.

*(KANPAI HOTSAK entzuten dira berriz ere, baino orain luze, gelditu gabe).*

**FRANTZISKA.**

Tira zoaz azkar. Guk jarraituko dugu lanarekin. Ama! Lagundu iezadazu!

*(FRANTZISKAK eta **JUANA BIXENTAK** tresna guztiak batzen dituzte. Haiekin batera baserri giroko gauza guztiak eramaten dituzte eta badoaz.*

*KANPAI HOTSAK entzuten dira.*

#### 4. AGERRALDIA

(**INAXIA** eszenatokiko izkinatxo baten dago, jantzia apaintzen eta zapia ondo jartzen. Ertzean ezkututzen da agertzen diren beste pertsonaiek ikusi ez dezaten. Atzeko aldetik agertu eta desagertuko da espiatzen dagoen bere burua.

KANPAI HOTSAK bukatzen dira

**MARGARITA**, “Fundación de las Margaritas” erakundeko kide dirudun eta emakume dotorea eliz kanpoan dago jendea agurtzen.

**TXERRIAK** irteten dira mezatik igandez jantzita. **MARGARITAK** mesprezuz begiratzen ditu.

**AITA DOMEKA**, herriko abadea ateratzen da).

**MARGARITA**. (Irribarretsu eta alai).

Oso meza polita, Aita Domeka.

**AITA DOMEKA**.

Mila esker, Margarita. Ez dago zu berdintzen zaituen fededunik!

(Ikusezina den **D. CLAUDIO SANCHEZ DE ALBORNOZ** Jauntxoa mezatik irteten da).

**MARGARITA**. (Urduri eta aldi berean hunkituta).

Egunon, Jaungoikoak emon, Don Claudio!

**AITA DOMEKA**.

Jaungoikoak bedeinka zaitzala, Don Claudio!

**MARGARITA**. (Abadea albo batera eramanez).

Don Claudio ikusi dugula, zerbait komentatu behar dizudala gogoratu dut, Aita Domeka.

**AITA DOMEKA**.

Don Claudiori buruzko zeozer?

**MARGARITA**.

Jaunak gorde nazala! Ez, arren, ez! Trokaolatarrak dira nire arduraren errudun.

**AITA DOMEKA**.

Ai... Zer egin dute oraingoan?

**MARGARITA**.

Horiek ezer ez. Zutaz ari naiz!

**AITA DOMEKA**.

Nitaz? Zer egin dut nik, bada?

**MARGARITA**.

(Haserre.) Ez dituzu sermoian aipatu!

**AITA DOMEKA**.

Jainko maitea! Nola aipatuko ditut? Ez dira aipatzeko adibide.

**MARGARITA**.

Horrexegatik, gizona! Etxean geratzen zitzaien gizonezko bakarra hilda, dama alargundua utzirik, nola egingo du aurrera familiak gizonezko barik?

**AITA DOMEKA**.



Badakit, badakit. Etxekoandreak gainera, Juana Bixentak, ez du auzokoen laguntza onartzen. Hori ez da jarrera kristaua, batere kristaua, ez horixe!

**MARGARITA.**

Buru barrua hutsik dauka. Edo behinik behin, ondo beterik ez dauka.

**AITA DOMEKA.**

Mezetarako nagi aurkitzen dira sekula eta beti!

**MARGARITA.**

Eske ibili ohi den Peru Makur bera, zintzoagoa da!

**AITA DOMEKA.**

Oso zeregin zaila da, Margarita. Alferrik da Trokaolatarra makilatzea, berez bihurtzen ez bada.

**MARGARITA.** (*Sermoia botatzen dio abadeari, konbentzitu nahiean*).

Horretarako zaude zu, Aita Domeka! Elizaren ministroa zara! Gizonaren, eta are gehiago, emakume horien legearen gaineratik, beste lege sendoago bat dago. Jainkoaren araudia! Berak agintzen du bere lege santuan. Bere nahia izan da gu, eta baita Trokaolatarrak ere, Don Claudio Sánchez de Albornoz Jaunaren lurretan bizitzea.

**AITA DOMEKA.**

Agian zuzen zabilta.

**MARGARITA.**

Jakina baietz, Domeka!

**AITA DOMEKA.** (*Oso euforiko*).

Bai, bai, bai eta bai!!! Jaungoikoaren izenean guk salbatuko ditugu!

**MARGARITA.**

Hori da, erretorea, hori da! Familia horrek osterantzean gu denok galdu egingo gaitu!

**AITA DOMEKA.** (*Zapiarekin aurpegiko izerdia kenduz*).

Jainko maitea! Nor eta Trokaolatarrak. Aligiri-Otumetxu baserrikoak. Kanpokoak izango balira behintzat... Baina ez, herri bertakoak!

**MARGARITA.**

Hiru emakume ero gizonezko barik! Nola ordainduko dituzte Don Claudioren emendioak. Esan, nola?

**AITA DOMEKA.**

Jainkoaren izen santuan gaur bertan ikusi behar ditut!

**MARGARITA.**

Txerriaren aitzakia erabili ezazu. Txerria hil omen dute.

**AITA DOMEKA.**

Badakit txerria hil dutela. Nola ez dut jakingo? (*Berriz ere guztiz haserre.*) Horretarako aldrebesak ere. Hilberrian hil dute! Halakorik! Edozein modutan laster ospatu beharko dute.

**MARGARITA.** (*Ironikoki*).

Nik ere ikusiko ditut orduan. Agian dama gazteena ezkon genezake. (*Barrezka hasten da*).

**AITA DOMEKA.** (*Barrezka erantzunez*).

Ja! Ja! Norekin?

**MARGARITA.**

Peru Makurrekin? Ja! Ja!

(**AITA DOMEKA** eta **MARGARITA** barrezka doaz.)

**INAXIA** haserre bizardan eszenatoki erdian agertzen da, ezkututako lekutik atera ondoren. Haserre aurpegia dauka. Marrazki bizidunetan bezala korrika egiten hasten da, baina lekutik mugitu gabe.

## 5. AGERRALDIA

MUSIKA entzuten da. **INAXIA** korrika hasten da, abiada bizian, alde batetik bestera, gora eta behera, urduri eta presaka.

Musika bukatzen denean **INAXIA** oso nekatuta dago eta bat batean **KARLISTA** agertzen da, fusilarekin mehatxuka. **INAXIAK** sentsualki agurtzen du, baina besteak ez du ikusten.)

**KARLISTA.**

Nor dabil hortik? Mekaguen Franko, nor dago hor? (**INAXIA** ikusten du, baina ez du ezagutzen. Tiro egiteko mehatxua egiten dio.) Lurrera! Danok lurrera oraintxe bertan! (**INAXIA** lurrean etzaten da.) Eskuak buruaren gainean! Azkar, azkar!

**INAXIA.** (Sentsualki lurretik agurtzen du.)

Iuju, Karlos! Ni naiz!

**KARLISTA.** (Harridura aurpegiz.)

E?!

**INAXIA.**

Inaxia naiz, laztana.

**KARLISTA.**

Ze Inaxia?

**INAXIA.**

Zure Inaxia, Aligiri Otumetxukoa...

**KARLISTA.** (Oso urduri, gorritzen hasia, neska nor den kontura eman denean.)

Barkatu, barkatu. Ez zaitut ezagutu.

**INAXIA.**

Ni zu bai oster. Kementsua eta indartsua zara, e?

**KARLISTA.** (Harro eta lotsatuta, irribarre artean, ume bat bezala.)

Tira, apur bat, baina... ez da horrenbesterako.

**INAXIA.**

Ez dut sekula zu bezalako gizon bihoztunik ezagutu.

**KARLISTA.**

Tira, potxola, jar zaitez zutik.

**INAXIA.**

Ondo nago hemen. Zergatik ez zatoz zu hona?

(**KARLISTAK** fusilarekin inguruak miatzen ditu. Inor ez dagoela ikusita **INAXIA**ren ondoan etzaten da.)

**INAXIA.**

Txerria hil dugu. Etorriko al zara dastatzera?

**FRANTZISKA.** (*Urrunetik bere ahotsa entzuten da.*)

Inaxia!

**KARLISTA.** (*Makurtuta jartzen da fusilarekin adi.*)

Zerbait entzun dut! Lasai dama, nik zainduko zaitut! (**INAXIA**  
**KARLISTA**ren atzean estaltzen da. Alde batetik bestera ibiltzen dira  
fusilarekin norbait aurkitu nahian.)

**FRANTZISKA.** (*Atzeko aldetik eta goitik bere burua agertzen da.*)

Inaxia! Inaxia!

**KARLISTA.**

Zure bila dabil norbait, kontuz!

**INAXIA.**

(*Urduri zutik jarriz.*) Frantziska da!

**KARLISTA.** (*Zutik jartzen da ere, bestea esandakoari kasurik egin gabe.*)

Nor dabil hortik?

**INAXIA.**

Nire ahizpa dela, txotxolo!

**KARLISTA.** (*Tiro egiteko asmotan.*)

Non dago?

**INAXIA.** (*Eskuaz fusila jaitsi erazten dio KARLISTAri.*)

Ezta pentsatu ere. Momentuz behintzat. Badator! Estaldu zaitetz.

(*Gonaren azpian KARLISTA estaltzera gonbidatzen du eta gona azpian  
sartzen da KARLISTA.*) Ui! (*Gustuzko oihua egiten du, irribarretsu.*)

**FRANTZISKA.**

Inaxia, hemen zaude. Azkenean!

**INAXIA.** (*Gonazpiko gustuagatik geldi egon ezinik.*)

He-he-hemen nago, baiiii.

**FRANTZISKA.**

Zertan ari zara?

**INAXIA.**

Meeeeeezatik nator.

**FRANTZISKA.**

Horregatik. Zer egiten duzu hemen?

**INAXIA.**

Airea haaaaaaartzen.

**FRANTZISKA.**

Hala, goazen etxera!

**INAXIA.** (*Urduri.*)

Ezin dut!

**FRANTZISKA.**

Zelan ezetz? Ama gure zain dago. Zeregin asko dago oraindik.

**INAXIA.**

O, o, o! Ooooo... Oraintxe nooooa!

**FRANTZISKA.**

Zurea Inaxia, kezkatzekoa da.

**INAXIA.** *(Gero eta gusturago dago.)*

Eeee... ez, neska, eeez!

**FRANTZISKA.**

Ondo al zaude?

**INAXIA.** *(Oso irribarretsu.)*

Pri-pri-pri-primeran.

**FRANTZISKA.** *(Haserre.)*

Inaxia, nirekin etxera ez bazatoz ederra izango dugu! (**FRANTZISKAK** haserre alde egiten du.)

**INAXIA.**

Ba-bai, ai, ai, aiaiiiiiii! *(Jasotako gozamenaren ondorioz irrintzi bat botatzen du.)*

*Dena ilun geratzen da).*

## 6. AGERRALDIA

**JUANA BIXENTA** eta **FRANTZISKA** agertzen dira lanerako tresnekin eta aulkiekin. **JUANA BIXENTA** eskumako aulkian jesarrita, **FRANTZISKA** erdikoan eta ezkerrean hutsik dagoen aulkia dagoela lan egiten duten bitartean hitz egiten dute.)

**FRANTZISKA.**

Inaxiak den-dena entzun du ama.

**JUANA BIXENTA.**

Aita Domeka eta Margarita lelantoni hori beraz guri buruz berbetan.

**FRANTZISKA.**

Hori da.

**JUANA BIXENTA.**

Kandela oker bat piztu beharko diot abade kaiku horri.

**FRANTZISKA.**

Kandela oker bana merezi dute.

**JUANA BIXENTA.**

Elizgizona argizarira ohitua dago.

*(INAXIA dator lanerako bere tresnekin eta besteekin batera lanean jartzen da, ezkerreko aulkian jesarriz. Denbora pixka bat ematen dute lanean isilean.)*

**INAXIA.**

Aiztoa non dago?

*(JUANA BIXENTAK botila bat ateratzen du. Tragoxka bat ematen dio. Botila FRANTZISKARI ematen dio. Honek tragoa eman ostean INAXIARI ematen dio, hirugarren honek tragoxka emateko ere. JUANA BIXENTA eskumako aldera joaten da bere kandlekin aritzeko).*

**FRANTZISKA.**

Amak kandela okerra piztu nahi dio abadeari.

**INAXIA.**

Kandela okerra? Horrek ez du ezertarako balio.

**FRANTZISKA.**

Balioko ez du? Emaizta onak eman izan dizkigu beti.

**INAXIA.**

Denbora gehiegi ematen du amak kandela artean!

**FRANTZISKA.**

Inaxia, mesedez...

**INAXIA.**

Ez da egia, ala? Kandlekin ematen duen denbora lanean emango balu goizago bukatuko genuen zeregina.

**JUANA BIXENTA.** (*INAXIA*rengana haserre hurbilduz.)

Jaio zinenean arkume buruzuri bat jaio balitz, hobe genuen!

**FRANTZISKA.**

Ama! Baina zer ari zara esaten?

**JUANA BIXENTA.** (*FRANTZISKA*ri orain.)

Eta zu jaio zinenean kaka mokordo bat atera izan balitz, ongarritarako balioko zenuen gutxienez!

**FRANTZISKA.** (*Entzundakoaz lotsatuta.*)

Ama, mesedez!

(*Bat batean AITA DOMEKA agertzen da.*)

**AITA DOMEKA.** (*Oso serio dator.*)

Jainkoak egun ona eman deizuela.

**FRANTZISKA eta INAXIA.** (*Etorrerakin harrituta.*)

Bai zuri ere, Aita Domeka.

**JUANA BIXENTA.** (*Maltzurkeri irribarreez.*)

Zutaz ari ginen hain justu, Domeka.

(*INAXIAk eta FRANTZISKAK JUANA BIXENTA urduri eta harriduraz begiratzen dute.*)

**AITA DOMEKA.**

Nitaz? Zergatik merezi ote dut ohore santu hori?

**JUANA BIXENTA.** (*Bere buruari.*)

Norbaitek esan al du ohorea denik?

(*Oilarrak behin abesten du.*)

**FRANTZISKA.** (*Disimulatu nahian.*)

Abade jauna... gonbitea egiteko ari ginen zutaz.

**INAXIA.**

Hori da, bai, bai. Txerria hil dugu!

**AITA DOMEKA.**

Ezta izango? Hori sorpresa galanta! Ez nuen halakorik espero, primeran, primeran! Estimuz onartzen dut gonbitea. Esker onekoa naizela badakizue. Margaritarekin batera etor banaiteke...

**JUANA BIXENTA.** (*Ironiaz.*)

Esker onekoa hori ere.

*(Oilarrak beste behin abesten du, bigarrenez.)*

**AITA DOMEKA.** *(Oilarrarekin kezkatzen hasia.)*

Hala ere ez dut ongi ulertzen zergatik aukeratu duzuen data hau ilberria izanik.

**FRANTZISKA.**

Oraingoan ez dugu kontutan eduki, besterik gabe.

**JUANA BIXENTE.**

Hiltzeko beharra izango zuen txerriak.

*(Oilarrak beste behin abesten du, hirugarrenez.)*

**FRANTZISKA.**

Franko gure oilarra ez dabil batere fin arratsaldeko ordu hauetan abesten ibiltzeko...

**JUANA BIXENTA.** *(AITA DOMEKARI gaiztakeriaz.)*

Marka txarra dela entzuna dut.

**AITA DOMEKA.** *(Larrituta.)*

Oilarrak orduz kanpo hiru bider baino gehiagotan abesten badu, norbait hil behar denaren seinale dela esan ohi da.

**INAXIA.**

Nik hiru biderrez entzun dut.

**FRANTZISKA.**

Hiru izan dira, bai.

**JUANA BIXENTA.** *(Irribarretsu.)*

Hiru baino ez...

**AITA DOMEKA.**

Tira, tira, utz ditzagun gauzok.

**FRANTZISKA.**

Esaguzu bada zeri zor diogun zure bisitalditxoaren ondra.

**AITA DOMEKA.**

Ez da kontu goxoa.

**JUANA BIXENTA.**

Ez da ustekabea.

**INAXIA.**

Esaguzu, Aita Domeka, zein da auzia?

**AITA DOMEKA.** *(Haserre altxatzen da sermoia botatzeko).*

Herrian esan didatenez igandetan lan egiteko atrebentzia duzue! Nire begiekin ikusi ahal izan dut oraintxe bertan gainera, zoritxarrez. Susmo hutsa izatearen esperantza neukan, baina ez da horrela!

**INAXIA.**

Horrela izan behar du, jauna. Hirurak bakarrik gaude Frantziska alargundu zenetik, ez dugu beste inor. Hiruron artean egin behar dugu lan guztia. Ez daukagu galtzeko astirik.

**AITA DOMEKA.**

Horixe da kontua. Ez dago gizonezko barik baserria aurrera atera dezakeenik. *(INAXIARENGANA hurbilduz).* Zu ezkontzeke zaude oraindik...

*(Isilune bat. Inork ez dio erantzuten.)* Baina larriena Don Claudiorena da! Oso haserre duzue. Dagokizuen ez ordaintzekotan botako zaituztela esana dit.

**FRANTZISKA.**

Baina ematekorik ez badaukagu, zer nahi du Don Claudio Sánchez de Albornoz jaunak guk ematea? Ezinezkoa da. Ez daukagu momentuz emateko ezertxo ere ez.

**AITA DOMEKA.**

Zuzen zaude, alaba, zuzen. Jaungoikoaren legea zuen alde dago. Horregatik, ez dago presarik batere presarik. Gaur ez bada, bihar. Bihar goizean bertan. Ez dago inongo presarik.

**FRANTZISKA.**

Gonbida ezazu orduan Don Claudio bera bihar odolkiak dastatzera etortzeko.

**AITA DOMEKA.**

Hobe duzue horrela. Ez dago esker oneko kristaua bezalakorik. *(Azken hitzak esan dituen bitartean jesarri eta buruan hatz egiten du txapela azpitik orri batzuk jausi zaizkiola.)*

**FRANTZISKA.**

Zer duzu ba txapela azpian?

**AITA DOMEKA.**

Bedeinkatutako ereinotz orriak dira. Honekin ez dit sekula tximista batek buruan emango.

**INAXIA.**

Ba nik entzuna dudanez abadeak eskatu behar du ekaitzarrik ez etortzea. *(Zutik jartzen da eta abarketa bat kentzen du).* Etortzekotan bere zapata erantsi eta zerura bota behar du. *(Abarketa botatzearen keinua egiten du).* Zapata desagertuko da, baina baita tximistaren arriskua ere.

**AITA DOMEKA.**

Kia, kia, kontuak! Burua zainduta eramatea nahiago dut!

*(Oilarrak beste behin abesten du, laugarrenez. Denak aho zabalik geratzen dira, AITA DOMEKA batez ere, oso kezkatuta agertzen baita.)*

**AITA DOMEKA.** *(Zutik, alde egiteko gogoarekin).*

Besterik ez baduzue, ni banoa.

**INAXIA.**

Ez al duzu ezer jan edo edan behar, jauna?

**AITA DOMEKA.** *(Oso urduri.)*

Zeregin asko daukat.

**FRANTZISKA.**

Igandean, Aita Domeka?

**AITA DOMEKA.** *(Presaka.)*

Hileta bat edo, nik zer dakit! Agur. *(Korrika alde egiten du.)*

**JUANA BIXENTA.** *(Alaben ondoan jesartzen da):*

Aiztoa non dago? **(INAXIAk)** botila bat ateratzen du. *Tragoxka bat ematen dio. Botila FRANTZISKARI ematen dio. Honek tragoa eman*

ostean **JUANA BIXENT**ari ematen dio, hirugarren honek tragoxka emateko ere. Gero, barrezka, oilarrarena egiten dute.)

**TROKAOLATARRAK.** (Barre artean oilarrarena egiten.)  
Kikiriki!!!

(Eszenatokia guztiz ilun eta musika muntai paranoikoa.)

## 7. AGERRALDIA

(Musika muntai paranoikoa: oilarra abesten eta irrintzia txalapartarekin nahastuta. Honek segundo batzuk irauten du. Bitartean eszenatokia guztiz ilun dago. Pertsonai guztiak txarribodarako prestatzen dira orduan.

Erromeria musika.

**TXORIZO usaina.**

Eszenatokiaren alde baten **TROKAOLATARRAK** daude txarribodako lanak egiten.



*Eszenatokiaren beste aldean **MARGARITA, KARLISTA, AITA DOMEKA** eta ikusezina den **D. CLAUDIO SÁNCHEZ DE ALBORNOZ** daude jan eta edan.)*

**AITA DOMEKA .**

Arraro samar aurkitzen badut ere, ezin hobea da!

**KARLISTA.**

Niretzat denak igual-igualak dira.

**MARGARITA.**

Zer jakingo duzu zuk, tripontzi hutsa zara eta! Eta zer deritzo D. Claudiok? (*Erantzuna ez entzun eta gero barrezka esaten dio.*) Beti bezain umoretsu eta jator Sánchez de Albornoz jauna.

**AITA DOMEKA.**

Jainkogabe horiena izatea ere...

**MARGARITA.**

Gaizki bataiatutakoek ondo jakin ohi dute txerria hiltzen. (*Barrezka hasten da **AITA DOMEKA**rekin batera.*)

*(**KARLISTA**k **INAXIA** baino ez du begiratzen, eta bere fusilarekin keinuak egiten dizkio.)*

*(Erromeria musika igo.)*

**FRANTZISKA.**

Margarita bazter nahasle hori hemen egon behar ere...

**INAXIA.** (*Begirada **KARLISTA**rengan kendu ezinik.*)

Bai, bai.

**JUANA BIXENTA.**

Mariapaiza!

**FRANTZISKA.**

Jan, jan eta jan. Hori baino ez dakite egiten. Eta Don Claudio jauntxoa?

**INAXIA.** (*Besteak esandakoa entzun gabe.*)

Bai.

**JUANA BIXENTA.**

Sabelaundia!

**FRANTZISKA.**

Eta ez pentsa Karlos hori hobea denik!

**JUANA BIXENTA.**

Txakurtxarra!

**FRANTZISKA.** (*Ahizpa mugi eraziz.*)

Inaxia, entzuten al didazu?

**INAXIA.** (*Haserre.*)

Ai! Baietz! Utz nazazu lasai, Frantziska. (*Bere lanarekin jarraitzen du.*)

*(Erromeria musika igo.)*

***INAXIA** eta **KARLISTA**k gero eta gehiago begiratzen diote elkarri.)*

**AITA DOMEKA.**

Jainkoaren izenean! (*Jan eta edanari utzi gabe.*) Gu txartoen bizi garenak bagina, ez litzateke munduan txarrik egongo.

**MARGARITA.** (*Barrezka eta D. CALUDIOri begira.*)

Horixe ezetz! Ezta, Don Claudio?

**AITA DOMEKA.**

Ikusi al duzue alaba nagusiaren aurpegi zikina?

**MARGARITA.**

Ai, Domeka, badakizu, alargun begi-ilun. Ja! Ja! (*Barre egiten dute.*)

(*Musika igo.*)

**AITA DOMEKA eta MARGARITA, D. CLAUDIO**rekin batera barrezka eta marmarrean jarraitzen dute.

**JUANA BIXENTA eta FRANTZISKA** haien kontuetara daude beste aldean.

Bitartean **INAXIA eta KARLISTA** hurbilduz joan dira. Musikal baten parodia eginez, bikote hau, maiteminduta bezala dantzan edo play backean hasten dira. Pixkanaka, pelikula orteroetan bezala, beste pertsonaiak gehitzen joango zaizkie, beraz dantzatxue, parodia gisa, komikoa.

Honekin bukatuko zen eszena hau ilunean).

## 8. AGERRALDIA

(**TXERRIAK** agertzen dira. Afarirako mahaia eta aulkiak prestatzen dituzte).

**TXERRIA 1.**

Inaxia horrek inbidia ematen dit. (*Maiteminduaren aurpegi txotxoloarekin.*) Nire kurrinketako urdea aurkituko banu nik ere! Ai...

**TXERRIA 2.**

Utz itzazu kurrinkeriak eta eskerrak eman oraindik kurrinka jarraitu ahal izateari.

**TXERRIA 1.**

Eskerrak eman nori? Jango gaituenari?

**TXERRIA 2.**

Frantziskaren senarrak, Florenxio Trabajorrek kendu digu oraingoz lekua, beraz ez dugu, momentuz, kezkatzeko arrazoirik.

**TXERRIA 1.**

Pernando Txistu hil zutenean berdin geunden, kezkatu.

**TXERRIA 2.**

Hori da! Zergatik egon behar dugu larri orduan? Aita Domekari gainera kandela okerra piztu diote!

**TXERRIA 1.** (*Mahaia prestatzen bukatu dutela, ikusle goarengana hurbilduz*).

Bai, badakit. Baina hala ere ez naiz guztiz fidatzen. (*Publikoko norbait bortizki seinalatuz*.) Esate baterako zuk, txorizoa gustukoa al duzu? E? Esan?

**TXERRIA 2.** (*Publikoko beste norbait bortizki seinalatuz*.)

Honek urdaiazpikoa jatearen aurpegia dauka, beitu!

(*TXERRIAK oso agresibo jartzen hasten dira*.)

**TXERRIA 1.**

Ez duzue, beraz, gu dastatzeko aukerarik izango! Ez dut uste hurrengoak gu izango garenik.

**TXERRIA 2.**

Izorrai!

**TXERRIA 1.**

Hauek horren zain daude.

**TXERRIA 2.**

Badakit. Usaintze soilarekin gosea etorri zaie.

**TXERRIA 1.**

Jan, jan eta jan!

**TXERRIA 2.**

Hori besterik ez dute buruan.

**TXERRIA 1.**

Jan, jan eta jan!

**TXERRIA 2.**

Beti ere dena erosteko prest!

**TXERRIA 1.**

Guztiaren jabe izateko nahia!

**TXERRIAK.**

Jan, jan eta jan! Hori besterik ez.

**TXERRIA 1.** (*Lasaituz eta beste TXERRIA begiratzuz*).

Dena dela, lehenengoa zu zeu izango zinateke!

**TXERRIA 2.**

Bai zera! Zure izterrek itxura gozoagoa dute!

(*TXERRIEK alde dute*.)

## 9. AGERRALDIA

**TROKAOLATARRAK** mahaia eta beharrezkoak prestatzen agertzen dira. Ez dira **TXERRIEN** presentziaz jabetu.

Otsoak edota txakurren zaunken soinua. Gabez da eta haize gogorra dago.)

**FRANTZISKA.**

Berandu dator abadea.

**INAXIA.**

Etorriko da, etorriko da.

*(JUANA BIXENTAK kandela bi jartzen ditu mahai gainean.)*

**INAXIA.**

Kandelekin berriz ere, ama?

**JUANA BIXENTA.**

Arerioari bi kandelekin eman behar zaio argia.

**FRANTZISKA.** *(Belartzarrak eskuan dituela.)*

Honekin nahikoa izango al dugu?

**INAXIA.**

Bai neska. Hanka hoztuko zaio betirako.

**JUANA BIXENTA.**

Ez du hurrengo kukua entzungo!

**FRANTZISKA.**

Ederto. *(Belarrak kalaberadun edalontzian sartzen ditu. Guztiz nabarmen geratzen da.*

**AITA DOMEKA** dator.)

**AITA DOMEKA.**

Jainkoak egun ona eman deizuela.

**INAXIA eta FRANTZISKA.**

Baita zuri ere, Aita Domeka.

**JUANA BIXENTA.**

Gabon, jesar zaitez, Domeka, jesar zaitez. *(Kalaberadun edalontziaren aurrean jesarri erazten du.)*

**AITA DOMEKA.**

Estimatzen da. Eta? Zer moduz Franko?

**INAXIA eta FRANTZISKA.** *(Zer dion ulertu gabe.)*

Franko?

**AITA DOMEKA.**

Bai, oilarra. Ez al da Franko deitzen?

**FRANTZISKA.**

A, bai, Franko. Zer du bada?

**AITA DOMEKA.**

Beste egunean lau aldiz abestu zuen.

**FRANTZISKA.**

Bai, eta?

**AITA DOMEKA.**

Ez al diozue ba suari gatza bota?

**FRANTZISKA.**

Jakina ezetz!

**AITA DOMEKA.**

Ba oilarraren gaitza kentzeko, hori da egin behar dena.

**INAXIA.**

Aita Domeka mesedez, horrelakorik! Zuk erakutsi bezala, Jainkoak nahi duenean iritsiko zaigu ordua. Ez oilarrak dioenean.

**AITA DOMEKA.**

Egia da, alabatxo, egia da. Gainera ez dago gauza horiekin kezkatu beharrik. Hori hilkutxa bezalakoa da. Egiteko eskatzen duenak, ez du berarentzat eskatzen. Eta eginda dagoenarentzat, horrek ez daki berarentzat eginda dagoenik.

**JUANA BIXENTA.**

Ardo pixka bat? (*Kalabera exajeratua duen edalontzian zerbitzatzan dio.*)

**AITA DOMEKA.**

Bai, jakina. (*Pozik jasotzen du kalaberadun edalontzia, baina ez dio tragorik ematen.*) Hilkutxei buruz ari garela entzun zer kontatu zidaten bart. Duela aste pare bat hildako emakume gaixo bat San Telmoko ermitan lurperatu zuten. Zortzi egun igaro ostean, gizon alargun gaixoak atera zezatela eskatu zuen. Aurrekoan presaka ibili omen zen gizona eta ez zuen kaxarik prestatzeko astirik izan. Gajoa!

(*TROKAOLATARREK irribarre inozoa egiten diote AITA DOMEKARI istorioa bukatu ostean. Hirurak batera trago handi bat ematen diote ardoari, AITA DOMEKAK gauza bera egiteko asmotan, baina honek ez du edaten. TROKAOLATARRAK urduritzen hasiak dira. Jatekoak eskaintzen dizkiote egarria izan dezan.*)

**FRANTZISKA.**

Gazta pixka bat?

**INAXIA.**

Edo txorizotxoa?

**AITA DOMEKA.**

Zuek bai kristau zintzoak, zintzorik bada inon!

**INAXIA.**

On dagizula!

**AITA DOMEKA.**

Jarrai ezazue bide honetatik eta santu izatera iritsiko zarete! (*Jateko zerbait hartzen eta jaten du TROKAOLATARRAK begirada adia-adiaz. Jan ostean bertso antzeko bat botatzen du, baina ez du oraindik edaten.*)

Janak on dagizula

edanak gaitzik ez,

gorputzak osasuna

eta arimak kalterik ez!

(*Topa egitearen keinua egiten du. TROKAOLATARRAK berriz hirurek batera tragoa ematen diote baina AITA DOMEKAK ez du oraindik edaten.*) Kontu eta kantu zaharrak. Monasterio garaietakoak. Kontatu al dizkizuet inoiz bertako txirriporroak. Ja! Ja! Ja! (*Bere kontakizunarekin*

*alai jarraitu nahi du, baina **TROKAOLATARREK** ez diote interesik jartzen. Egiten duten gauza bakarra berriz ere hiruek tragoxka bat ematea da eta kolpe batez edalontzia mahai gainean utzi.) Tira, ardotxoa frogatu beharko dugu.*

**JUANA BIXENTA.**

Atzamarrak miazkatuko dituzu gozoaren gozoz!

**AITA DOMEKA.**

Zuen osasunerako eta neure onerako! (*Besteen begiradapean edalontzi osoa edaten du.*) A! Ederra!

*(**TROKAOLATARRAK AITA DOMEK**ari begira geratzen dira, geldi-geldi. **AITA DOMEKA** eztulka hasten da. Besteek urduri begiratzen dute. Ez da ezer jasotzen.)*

**AITA DOMEKA.**

Gustura edango nuke beste basotxo bat.

*(**FRANTZISKA** eta **INAXIA** abiada batean zutitzen dira **AITA DOMEK**ari ardo gehiago emateko. **FRANTZISKA** ardoa botatzen duen bitartean **INAXIAK** belartzarrak botatzen ditu berriz ere. **AITA DOMEK**ak poz pozik edaten du ardoa.)*

**AITA DOMEKA.**

Zeruko txaloa merezi du ardo honek!

*(**AITA DOMEKA** itotzen hasten da. **TROKAOLATARRAK**, disimuluan, oihuka hasten dira. **AITA DOMEKA** hilda dagoela ematen duenean **TROKAOLATARRAK** lasai gelditzen dira. **AITA DOMEKA** berriz ere itotzen hasten denean **TROKAOLATARRAK** oihuka berriz ere, abadea hil arte.*

**AITA DOMEKA** hilda dagoela dena ilun geratzen da.

## 10. AGERRALDIA

**TROKAOLATARRAK** afari osteko garbi dagoen mahaiaren inguruan.

**JUANA BIXENTA**, beti bezala, bere kontura.

**FRANTZISKAK** eskutitz bat dauka eskua artean. **INAXIA**rekin batera horri buruz ari da.)

**FRANTZISKA.** (*Paperekoa irakurtzen.*)

“Emakumeek nire babes guztia dutela jakin dezazuen nahi dut. Gauza guztien gainekoa den Jainkoak Trokaolatar emakume kristauak zaindu eta bere altzoan babes ditzala. Jainkoak denok bedeinka gaitzala. Aita Domeka.” Sinadura ez dakit sinesgarriegia den.

**INAXIA.**

Ez da izango? Utzi horrela. Oso ondo dago.

**FRANTZISKA.**

Ondo beteko al du agindua Karlos horrek?

**INAXIA.**

Ez zaitez mesfidatia izan, neska.

**JUANA BIXENTA.**

Militarren mutila, Deabruaren mutila.

**INAXIA.**

Ja! Eta zeinen neskak gara gu?

**JUANA BIXENTA.** (*Oso haserre.*)

Pernando Txistu Trokaolatarrarena! Deabrua baino zekenagoa zen gizona. Garaiz sartu genuen lapikoan.

(*KARLISTA sartzen da.*)

**KARLISTA.** (*Alai, bere fusilarekin eskuan.*)

Egun on guztioi!

**INAXIA.** (*Urduri.*)

Egunon, Karlos...

**FRANTZISKA.**

Ez dugu galtzeko astirik. Zure eginkizuna azkar bete behar duzu.

**KARLISTA.** (*Sabelean eskua jarriz.*)

Aizue, baina... triparekin zorretan nago.

**FRANTZISKA.**

Barauan lanak hobeto egiten dira. (*Eskutitza luzatzen dio.*) Zama arina da eraman behar duzuna gainera, beraz ez dago indarrak hartzearen beharrik. (*KARLISTAri ez dio grazia handirik egiten.*)

**INAXIA.** (*Ume bati bezala hitz egiten diote KARLISTAri.*)

Emaiozu gutun hori Margaritari.

**KARLISTA.** (*Harrituta.*)

Margaritari?

**INAXIA.**

Bai, Margarita berari.

**FRANTZISKA.**

Aita Domekak eman dizula esan behar diozu.

**KARLISTA.** (*Ez du ezer ulertzen.*)

Aita Domekak?

**INAXIA.**

Bart! Bart eman zizula esan!

**KARLISTA.**

Baina hori gezurra da!

**FRANTZISKA.**

Hortan datza kontua!

**JUANA BIXENTA.**

Artaburua!

**INAXIA.**

Zuk ikusi izan bazenu bezala egin ezazu.

**KARLISTA.**

Baina nola egingo dut hori, Aita Domeka ikusi ez badut?

**JUANA BIXENTA.**

Odolgabea!

**INAXIA.**

Asma ezazu zerbait, nahi duzuna!

**FRANTZISKA.** *(Haserre.)*

Nahi duzunerako ondo zabilta isilean eta gezurretan.

**INAXIA.** *(Urduri.)*

Kontuz! Margarita dator!

**FRANTZISKA.**

Hara bestea! *(INAXIAgatik.)* Gaiaz aldatzeko edozer asma dezake.

*(KARLISTAK fusila altxatzen du. MARGARITA agertzen da. KARLISTAK tiro egitearen mehatxua egiten dio.)*

**MARGARITA.** *(Fusila jaitsiz.)*

Gero eta tentelagoa zara, Karlos! Zer ari zara hemen egiten? *(Besteak aurrean dituela kontura emanez.)* Egunon, Jaungoikoak emon!

**FRANTZISKA.** *(Urduri.)*

Berdin...

**INAXIA.**

Egunon, bai. *(Karlosen egoteari aitzakia jarri nahian.)* E... guk deitu dugu Karlos. Enkargu bat egiteko.

**FRANTZISKA.** *(Presaka, txorizo batzuk hartzen ditu disimulatzeko.)*

Hori da! Emazkiozu azkar txorizotxoak alkateari.

**KARLISTA.** *(Txundituta.)*

Txorizoak orain? Eta alkateari???

**INAXIA.**

Eta goraintziak Trokaolatarrengandik.

**KARLISTA.** *(Ez du ezer ulertzen.)*

Nori baina, alkateari?

**INAXIA.** *(KARLOS kanpora bidali nahian.)*

Bai, gizona, alkateari. Lehen esan bezala...

**KARLISTA.** *(Zerbait gogoratuko balu bezala.)*

Itxaron une batez. *(Interesgarriarena egiten.)* Margaritarentzat zerbait daukat. *(TROKAOLATARRAK ikaratuta begiratzen dute, KARLISTAren hanka sartzearen beldur.)*

**MARGARITA.**

Niretzat? Zer duzu zuk ba niretzat, arlote?

**KARLISTA.** *(Eskuan duen gutuna luzatzen dio.)*

Eskutitz hau.

**MARGARITA.** *(Haserre.)*

Eta jakin liteke zer egiten duzun eskutitz horrekin gora eta behera? Niretzat izatekotan lehenago eman behar izan didazu. Baina ez, ziur berarekin alde batera eta bestera ibili zarela, ergela! Noren eskutitza da?

**KARLISTA** .

Aita Domekarena.

**MARGARITA.** *(Harrituta.)*

Domekarena? Eta zergatik idatzi beharko dit niri Aita Domekak gutun bat? Arratsaldean ikusiko dut. *(Umore txarrez eskutitza kentzen dio.)* Emadazu hori ba, tuntuna! *(Eskutitza presaka gordetzen du.)* Elizan egon



zara gaur ala? Ez litzaizuke batere txarto etorriko. (*Ironikoki, TROKAOLATARREI.*) Tira, ez litzaioke inori batere txarto etorriko.

**KARLISTA.** (*Urduri.*)

Ez, ez naiz elizan egon.

**MARGARITA.**

Orduan, Domeka ikusi al duzu?

**KARLISTA.** (*Urduriago.*)

Bai, bai.

**MARGARITA.**

Noiz ikusi duzu?

**KARLISTA.** (*Oso urduri.*)

Goizean... Beno, nik ez dut ikusi...

**MARGARITA.**

Argi hitz egin Karlos. Kokolokeriarik gabe!

**KARLISTA.**

Niri... eskutitza eman didate.

**MARGARITA.**

Nork eman dizu eskutitza?

**KARLISTA.** (*Zer esan jakin gabe.*)

Nire amak!

**INAXIA.** (*Haserre, KARLISTA bota nahian.*)

Tira Karlos! Hobe alkatearengana bazoaz...

**FRANTZISKA.** (*KARLISTA kanporantz bultzatuz.*)

Eta azkar gainera!

(*KARLISTAK buru makur alde egiten du.*)

**FRANTZISKA.** (*Aitzakiak jarriz.*)

Mutil hau, badakizu... Enkargu baterako bidali eta...

**MARGARITA.**

Halaxe da. Baina mirakulua nahi bada, San Antoniori egin galde.

**JUANA BIXENTA.**

Astoa nola, puzkerra holan.

**MARGARITA.** (*JUANA BIXENTARI zuzentzen zaio, irribarretsu.*)

Ikusten dut Juana Bixenta urteek ez dutela barkatzen, ez horixe.

**JUANA BIXENTA.**

Tximista batek erdibitu zaitzala!

**MARGARITA.**

Baita zuri ere. (*Tonua aldatuz eta orain alabei hitz eginez.*) Ez naiz ankerkeriak entzutera etorri. Badakizue garai hauetan, urtero-urtero, Fundación de las Margaritasekoek txiro eta behartsuen ohorean luntxa antolatatu ohi dugula.

**INAXIA.**

Eta guri gonbitea egitera al zatoz?

**MARGARITA.** (*Erdi barrezka.*)

Bai zera! Halakorik! Beste zeozer da. Ikusi dut alkateari txorizoak eman dizkiozuela. Imajinatzen dut, beraz, Fundación de las Margaritasekoentzat izango duzuela zerbaitxobait ere, ezta?

**FRANTZISKA.**

Baina zer da, txiroei emateko? Nahiko pobre gabilitza gu.

**MARGARITA.**

Ez duzue tutik ere ulertzen! Guk irensten ditugu jakiak, baina, hori bai, txiro eta behartsuen omenez. Gainera zuen txorizotxo gozoekin laguntzea komeni zaizue. Dakizueenez Don Claudio Sánchez de Albornoz jaunak asko estimatzen du “Fundación de las Margaritas”, emakumeon elkarte santu eta lagungarria.

**INAXIA.**

Baita guk ere, baina ezinezkoa zaigu tamalez.

**FRANTZISKA.**

Beste txerri bat hil egin beharko genuke horretarako.

**JUANA BIXENTA.**

Uneoro da San Martin.

**INAXIA.**

Ospakizunak direla eta ez direla, eta Aita Domeka eta alkateari emandakoaz, ezer gutxiarekin gelditu gara.

**MARGARITA.**

Eta Don Claudiori? Ez al diozue ezer eman gure jaun gorenari?

**FRANTZISKA.**

Ba ez, ezinezkoa izan zaigu ere.

**MARGARITA.**

Ezta txorizo txiki bat ere?

**JUANA BIXENTA.**

Ezta txerriaren ile bat ere!

*(MARGARITA, harrিতuta geratu ostean, buelta ematen eta ikusiezina den DON CLAUDIOrekin hitz egiten hasten da.*

*Bitartean TROKAOLATARREK tramankulu guztiekin alde egiten dute.*

## 11. AGERRALDIA

*Eszenatokian MARGARITA bakarrik dago.)*

**MARGARITA.**

Imajinatzen nuen Don Claudio. Nola ez nuen imajinatuko, ba? Trokaolatarrek ez dizute txorizorik eman. Niri ere ez. Ez zara bakarra, ez horixe! Ondo dakizunez, Fundación de las Margaritasekoek luntxa ospatu behar dugu aurki, eta ez digute ezertxo ere eskaini. Ezta txorizo txiki bat ere! *(Desesperatua.)* Herritik bota behar ditugu, Don Claudio! Zure lurretatik alde egin behar dute, eta azkar gainera! Etorrinak direla pentsatu behar dugu eta merezi duten tratamendua eman. Arrotzak deuseztatu behar ditugu! Bizkor, gainera! Aita Domekak berdina pentsatzen duela uste dut. Trokaolatar narratsak herritik kanpora, Don Claudio! Hara! Domekaz ari naizela. *(Eskutitza ateratzen du.)* Arraroa da. Karlos zozo horrek eman dit apaizaren partez. Zer behar izango du? *(Eskutitza begiratuz.)* Dudarik gabe, Domekak mozkortuta zegoenean idatzi du eskutitza, zer nolako idazkera! *(Eskutitza irakurtzen*

*hasten da.*) “Margarita maitea: ez da erraza esan behar dizudan hau. Bizitzak erabaki zailak hartzera behartzen gaitu. Jaungoikoaren lege zaharraren nahiak bete behar ditugu. Neketsua bada ere, kristautasunari zor diot dena eta horren ondorio da hurrengo xede-hartzea. Ameriketara gure herrian baino Jaungoikoaren behar gehiago dute. Indio asko kristautzeke dago oraindik. Bertara noa.” Ai ene, Don Claudio! Aita Domekak utzi gaitu! Ameriketara joan da! (*Erdi negarrez eta oso urduri.*) Irakurtzen jarraituko dut, bai. “Trokaolatarrei dagokionez, emakumeek nire babes guztia dutela jakin dezazuen nahi dut. Gauza guztien gainekoa den Jainkoak Trokaolatar emakume kristauak zaindu eta bere altzoan babes ditzala. Jainkoak denok bedeinka gaitzala. Aita Domeka.” Jainkoak Trokaolatarrak babes ditzala? Ezta pentsatu ere! Herriaren zaindaritza gure esku dagoen bitartean, inola ere ez! Ezta, Don Claudio? Ez digute jakirik eman. (*Sarjentu moduan.*) Aita Domekak alde eginda, guk hartu behar dugu herriko buruzagitza eta autoritatea! (*Pentsakor orain.*) Hori bai, badago larritzen nauen zerbait. Karlosek eskutitza bere amak eman diola esan dit, honi Aita Domekak eman diolakoan. Baina Karlos umezurtz da! Ez du amarik! Don Claudio, zure baimenarekin, denak matxinatu aurretik, herriaren kargua hartzera noa. Agur, Sánchez de Albornoz jauna.

**(MARGARITAK** alde egiten du.

## 12. AGERRALDIA

**TXERRIAK** agertzen dira. Gero eta lodiago daude. Bizi duten egoera onaren adierazle. Purua erretzen, kantari eta dantzari datoz.

### TXERRIAK.

Kurrin kurrin!  
Beti da San Martin  
Trokaolatar emakumeekin!

Hil ez eta gainera  
jaten emon guri  
Aligiri-Otumetxuk  
hotela dirudi.

Kurrin kurrin!  
Beti da San Martin  
Trokaolatar emakumeekin!

Aita Domeka jauna  
Irits zenean  
gela eman zioten

hozkaile barnean.

Kurrin kurrin!  
Beti da San Martin  
Trokaolatar emakumeekin!

Hantxe ibiliko da  
bere lagunekin  
Florenxio Trabajador  
ta Pernandorekin.

Kurrin kurrin!  
Beti da San Martin  
Trokaolatar emakumeekin!

Iritsiko zaizkie  
bezero gehiago  
herrian hanka biko  
txerri asko dago!

Kurrin kurrin!  
Beti da San Martin  
Trokaolatar emakumeekin!

Margarita daukate  
bere arerio.  
Petalorri denak  
jausiko al zaizkio?

Kurrin kurrin!  
Beti da San Martin  
Trokaolatar emakumeekin!

Don Claudio aberatsa  
hilez gero, tira,  
odoloste berdeak  
aterako dira!

Kurrin kurrin!  
Beti da San Martin  
Trokaolatar emakumeekin!

Trokaolatar hauek,  
zein neska bitxiak!  
Nominatu dituzte  
herriko guztiak.

Kurrin kurrin!  
Beti da San Martin

Trokaolatar emakumeekin!

Alde egin dezagun,  
agurtuta denak  
han baitatoz txerri  
lagunik onenak!

Kurrin kurrin!  
Beti da San Martin  
Trokaolatar emakumeekin!

(**TXERRIAK** bertsotan bukatu dutenean, **FRANTZISKA** eta **INAXIA** agertzen dira.)

### 13. AGERRALDIA

**INAXIA.** (**TXERRIAK** seinalatuz.)

Aizu, ahizpa. Eta hauek, zer?

**FRANTSIZKA.**

Egia da, osasuntsu daude.

(**TXERRIAK** urduritzen hasiak dira eta kurrinka alde egiten dute. **FRANTZISKA** eta **INAXIAK** animaliek alde egin dutenean, barre artean hitz egiten dute.)

**INAXIA.**

Gajoak! Nola urduritzen diren.

**FRANTZISKA.**

Hala da, bai. Baina gure asmoak ezagutzekotan ez lukete horren azkar alde egingo.

**INAXIA.**

Eskerrak eman beharko liokete Aita Domekak egindako fabore horri.

**FRANTZISKA.** (*Urduri eta pentsakor.*)

Agian Aita Domeka itzuliko da.

**INAXIA.** (*Barrezka.*)

Hori da Margarita eta Don Claudiok uste dutena!

**FRANTZISKA.** (*Erremordimientoa sortu zaiola dago.*)

Ez diot horregatik. Zorrak ordaindu gabe joan da.

**INAXIA.**

Nola ez dituela zorrak ordaindu? Gurekiko bai behintzat. Fernando, gure aita, eta Florenxio, zure senarrak, bezalaxe ordaindu du gurekiko zorra.

**FRANTZISKA.**

Haiek ere bueltatuko dira agian.

**INAXIA.** (*Zakarki moztuz.*)

Bai zera! Domeka, Florenxio edota aita agertuko balira, sutan kiskaltzen utziko genituzke. Baina ez zaitetz inuzentea izan, Frantziska!

**FRANTZISKA.** (*Kezkatuta.*)

Beti gaizki bizi izan gara. Bide onean joateak kezkatzen nau. Gainera amarekin txarto portatzen ari gara. Banaketak ez ditugu zuzen egiten. Ez diogu dagokiona ematen.

**INAXIA.**

Eta zertarako behar du amak dirua? Zaharra da! Ez du ezertarako behar.

**FRANTZISKA.** (*Lur jota.*)

Ez dakit Inaxia, ez dakit. Hiru heriotza! Non daukagu ba bihotza!

**INAXIA.**

Frantziska, arren! Ez zaitetz faltsua izan eta ez zaitetz gezur zuri horiekin hasi!

**FRANTZISKA.**

Gibelaundi bat baino ez zara ! Ez al dizu ezerk axola?

**INAXIA.**

Jakina baietz, Frantziska, gure onurak. Gutxi al da?

(*Etenaldi labur baten ostean **JUANA BIXENTA** agertzen da.*)

**JUANA BIXENTA.** (*Pozik dator.*)

Hasiko al gara inoiz?

**INAXIA.** (*Ironikoki.*)

Bai ama, oraintxe. Heldu da gehien maite duzun momentua: eskuratutakoaren banaketa! Trokaolatarraren irabazien banaketa argi eta garbia.

**JUANA BIXENTA.** (*Harira joan nahi du, esandakoari kasurik egin gabe.*)

Tira, tira, has gaitezen!

(*TROKAOLATARRAK banaketa egiteko presatzen dira. **JUANA BIXENTA** oso pozik, **FRANTZISKA** erremordimientoarekin dagoela eta **INAXIA** egoera zuzendu nahian. Honek etengabe emango dio amari edateko.*)

**JUANA BIXENTA.**

Hasi aurretik zerbait eskatu nahi dizuet.

**INAXIA.**

Zer ama? Ez al zara orain pozik bizi?

**JUANA BIXENTA.**

Ez da hori. Entzudazue adi.

(*THE GODFATHER musika, El Padrino.*)

**JUANA BIXENTA.**

Hiltzen naizenean niri dagokidan guztia saldu egingo duzue. Irabazitako diru guztiarekin nire ohorean mezak antolatuko dituzue. Urtero-urtero meza bi nahi ditut: San Juan eta San Martin egunetan.

**INAXIA.** (*Haserre.*)

Baina ama! Zertarako behar dituzu mezak hilda zaudenean?

**JUANA BIXENTA.** (*Gogorki.*)

Urtero meza bi nahi ditut!

**INAXIA.**

Ez dut ulertzen, ama. Ez dut ulertzen. Nor eta zu meza eske?

**FRANTZISKA.** (*Haserre eta serio.*)

Amak horrela nahi badu, horrela izango da!

*(TROKAOLATARRAK isilean banaketarekin hasten dira.*

## 14. AGERRALDIA

### BANAKETA

*Banaketaren gauzak agertzen joango dira. Horien artean dirutxoak, billetetxoak eta abar.*

DANTZA: "Money, money".

*Eszenatokia pixkanaka **kasino** bihurtu da. Bertan pertsonai guztiak*

**TROKAOLATARRAK, MARGARITA DON CLAUDIOREKIN, KARLISTA eta AITA DOMEKA,** adarrak jantzita, agertzen dira, diru jolasean, oso pozik.

**TXERRIAK** dira kasinoko kupierrak eta tabako saltzaileak (conejitos katxondos)

*Dantzaldia eta abar aprobetxatuz azken afarirako mahaiak eta aulkiak prestatzen dira).*

## 15. AGERRALDIA eta azkena

*Kasinoa bukatu denean eszenatokian **TROKAOLATARRAK** agertzen dira mahai handiaren inguruan mantela jartzen ari direla).*

**FRANTZISKA.** (*Mantela esku artean duela.*)

Honekin jarriko dugu mahaia?

**INAXIA.**

Oihal honek estali zituen (*Kristauen "aitaren" otoitza imitatuz*) gure aitaren, zure senarraren eta Aita Domekaren gorpuak.

**FRANTZISKA.** (*Onartzearen keinua egiten du.*)

Horrela bada.

(**INAXIAK** eta **FRANTZISKAK** oihala jarri eta bost edalontzi normal eta kalaberadun bat ipintzen dituzte mahai gainean.)

**INAXIA.** (*Irribarretsu.*)

Afariarekin bukatu behar dugu.

**FRANTZISKA.**

Ama, zuk ekin zure lanari.

(**FRANTZISKA** eta **INAXIAK** alde egiten dute.

**JUANA BIXENTA** bakarrik geratu da. Amantaletik belartzarrak ateratzen ditu. Ez daki nora bota, beraz edalontzi guztietan sartzen du, baten ezik, kalaberadunean.)

**INAXIA.** (*Kanpotik bere ahotsa entzuten da.*)

Ama! Badatoz! Zatoz azkar!

(**JUANA BIXENTA** badoa.

REQUIEM musika entzuten da.

Publikoaren artean desfiletxo antzeko bat egiten dute pertsonaiek.

**JUANA BIXENTA** eta **FRANTZISKA** lehenengo, kandela bana piztuta daramatela.

**INAXIA** eta **KARLISTA** gero, hauek ere kandela bana piztuta daramatela.

**MARGARITA** ondoren, bakarrik, momentuz, eta bi kandela piztuekin.

Pertsonaiak jendartean desfilea egiten dabiltzan bitartean **TXERRIAK**, sarda eta makila dakartela, eszenatokian agertzen dira.)

**TXERRIA 2.** (*Sarda eskuan duela.*)

Azken afaria dela susmatzen dut.

**TXERRIA 1.** (*Makilarekin seinalatuz.*)

Begira, hor dituzu den denak.

**TXERRIA 2.**

Lehenengoak borondatez alargundutako emakumeak.

**TXERRIA 1.**

Begi ilun izan nahi ez zuten ama eta alaba.

**TXERRIA 2.**



Maiteminduak doaz haien atzetik.

**TXERRIA 1.**

Nahi izanda ere gauzak aldatu ezinik dabiltzan alaba gaztea eta soldadu zozoa.

**TXERRIA 2.**

Eta urkamendi biderako azkena. Fundación de las Margaritas erakundeko kide errespetagarria.

**TXERRIA 1.**

Aita Domeka gabe norbera norberetara doan Margarita.

**TXERRIA 2.**

Inor gabe, bereber.

**TXERRIA 1.**

Bakarrik? Eta Don Sanchez de Albornoz jauna?

*(PERTSONAIAK haien desfilea jarraitzen dutela, MARGARITAK isiltasuna apurtzen du. Publikoko gizonezko bat harrapatzen du eta zutik jarri erazten du.)*

**MARGARITA.** *(Publikoko gizonari daukan kandeletako bat emanez.)*

Don Claudio! Zure zain nengoen! Non sartu zara, baina? Ez zaitez kezkatu. Zu nire aldamenean. Trokaolatarrekin ez du hitz egiteak merezi. Tutik ere ez!

*(PERTSONAI GUZTIAK eszenatokira igotzen doaz, bakoitza mahaiko leku baten jesartzen delarik.)*

**MARGARITA** *publikoko gizona den DON CLAUDIOrekin igotzen da ere, honek ere bere kandela eskuan daramala. Bata bestearen aldamenean jesartzen dira.)*

**MARGARITA.** *(Denak afaltzeko jesarri eta kandela mahaian uzten dute.)*

Ohorea kontsidera dezakezue Don Claudio Sanchez de Albornoz jauna gurekin izatea. Zeregin asko dauka. *(Ikusleari galdezka.)* Ez al da horrela? *(Ikuslearen erantzunaren ostean, erantzunik izatekotan.)* Hala ere Don Sanchez de Albornozentzat, gure jaunarentzat, ezinbestekoa da gaurko afarira etortzea, albiste garrantzitsua emateko baitauka. *(Ikusleari berriz ere galdezka.)* Zuk esango al diezu ala nik esango diet? *(Ikuslearen erantzunaren ostean, erantzunik izatekotan.)* Nik esango diet, Don Claudio, badakit ez dela lan erraza. *(Mahaian jesarrita daudenei.)* Gure herria azken urteotan bizi izan duen bolada txarrean dago. Aita

Domekak Ameriketara alde egin zuenetik, nik hartu behar izan dut haren kristau eta behar santua. Beraz...

**JUANA BIXENTA.** *(MARGARITA moztuz.)*

Aizu! Aita Domeka aipatu duzula. Topa dagigun!

*(FRANTZISKAK ikuslea den DON CLAUDIORI kalaberadun edalontzia ematen dio.)*

**PERTSONAI GUZTIAK** *zutik jartzen dira, topa egiteko keinuarekin, edalontziekin goian.)*

## **PERTSONAI GUZTIAK.**

Janak on dagigula  
edanak gaitzik ez,  
gorputzak osasuna  
eta arimak kalterik ez!

*(Denek edalontzian dagoen ardo beltza trago batez edaten dute.  
Ikuslea den **DON CLAUDIO** begiratzen hasten dira, irribarre maltzurrez.  
Denak **DON CLAUDIOREN** erreakzioaren zain daude, bera baita kalaberadun  
edalontzia duena.  
Baina ikusleari ez zaio ezer gertatzen.  
Orduan **PERTSONAI GUZTIAK** itotzen hasiko dira, ikuslea bizirik geratuko den  
bakarra izanik.)*

## **TXERRIA 2.**

Esan dizut, hauxe genuen azken afaria.

## **TXERRIA 1.**

Baina ez Don Claudiorentzat, ordea. Begira! Bizirik dirau! (**IKUSLEAK**  
*hildakoarena egiten badu ere, bizirik dagoela erakutsiko dute.*)

*(TXERRIAK haserre bizian **DON CLAUDIO** atakatzera doaz. Bata makilarekin  
eta beste sardarekin.*

**IKUSLEA** eszenatokitik kanpo bota behar dute **TXERRIEK**.

**TXERRIEK IKUSLEA** bota dutenean, dena ilun geratzen da eta bukaerako

MUSIKA ALAIA

eta

**PERTSONAI GUZTIEKIN agurraren DANTZA.**)